

BALIOZKO PROPOSAMENA

Gure baliozko proposamena zerbitzu bat da. Zerbitzu honek bi arazo nagusi konpontzea du helburu. Alde batetik, garraio bat eskaintzen du. Bestalde, garraio partekatu bat eskaintzean, aldaketa klimatikoaren aurkako borrokan pauso bat aurrera egiten du, ingurumenarekin kontzienteagoa den garraioa zehazki. Horrela, gure enpresak garraiatzeko modu seguru, merke eta ekologikoagoa eskaintzen du. Azken finean, autoa partekatzeko zerbitzua eskaintzen dugu.

Gurpil-Bidez-ek balore kualitatibo eta kuantitatiboa du. Balore kuantitatiboari dagokionez, beste zerbitzu asko baino merkeagoa da, autoa partekatzean gasolina edo bestelako ondasun askoren erosketa banatu ahal baita. Balore kualitatiboari dagokionez berriz, gure zerbitzuak zerbitzu eroso eta ekologikoa eskaintzen du, bezeroaren esperientzia hobetuz.

Gurpil-Bidez-en ezaugarri garrantzitsuenetariko bat ekologiarekiko duen konpromisoa da. Gure helburu nagusietako bat produktuen bizitza erabilgarria luzatzea da, horrela, garraioa eskaintzeko egindako produktuen erabilera konstantea bermatzea nahi dugu, produktu berrien beharra txikituz. Gainera gure zutabe garrantzitsuenetariko bat ibilgailuen partekatzea den bezala ibilgailu kutsakor hauen kopurua kaleetan jaitsi egiten da, guztira isurtzen diren CO₂ emisioak urrituz.

Bestalde, beste enpresen ez bezala, gure enpresak ez ditu prezioak denboraren menpe ezartzen, Gurpil-Bidez-en egindako kilometroen arabera jartzen ditugu prezioak, horrela, erabilera motzerako edo erabilera luzerako baina distantzia txikietarako bidaiak egiteko zerbitzu bat eskaintzen dugu. Orobat ibilgailuaren erabilerak dakarren gastuen zati bat Gurpil-Bidez-ek ordaintzen duenez azken prezioa ere beste enpresak eskaintzen duten baino prezioa baino murriztuagoa da.

Auto, autokarabana, motor eta bestelako produktuak hirugarren pertsonen jabeagoak izanda, gure zerbitzua garraio hauek gordetzen diren lekutik ateratzeko bide da. Horrela, bere gurpildun garraioa uzten digun bezeroak ez du bakarrik dirua irabaziko ondasun horren maileguengatik, baizik eta ondasun hori garaje baten

edukitzeagatik ordaindu beharko lukeen dirua aurrezten du. Onura hau bereziki garrantzitsua da furgoneta eta autokarabanen bezalako garraio handietan.